

## Patronalek gor eta mutu negoziatioari ! Konfrontazioa gogortzera eramaten gaituzte

Bere garaian grebaren deialdiak ez zuen erantzunik eragin eta -harrigarraia bada ere- patronalek ez zuten inolako mugimendurik egin gelditzeko. Horren ondorioz, greba gauzatu behar izan genuen eta gure ustez erantzuna nahiko handia izan zen. Kristau Eskolaren arduraduna, mezua ulertu beharrean, grebaren ondorioak gutxitzen ahalegindu zen prentsaren aurrean bere erantzukizuna administratioari (gaizki finantziatzen dutela) eta sindikatuei (gatazka sindikatuen arteko hauteskunde lehiak sortu omen du; eskatzen dugunarekin ikastetxeak arriskuan jartzen dugu) pasa nahian.

Grebaren emaitzen argira, joan den martxoaren 20an sindikatuok idazki bat bidali genien patronalei, berriro ere negoziatio prozesua aktibatzeke eskatzen. Gaur arte ere, erantzunik ez dugu izan. Azkenik, aste honetan ikastetxeetako zuzendariak ere jasoko dute eskaera bera, neurri ezberdinetan bada ere, haiek ere direlako egoeraren erantzuleak eta asko dutelako egiteko.

STEILASen ustez, garbi geratu da, beraz, orain arte nortzuk dauden negoziatioaren alde eta nortzuk aukeratu duten gatazka laborala gogortzeko bidea; nortzuk jokatzen duten arduraz eta nortzuk erabili nahi duten gatazka bere interes ideologikoen alde.

Beste biderik usten ez digutenez, bere unean adierazi genuen bezala, borrokaren formatua intentsifikatu beharko dugu. Datorren astean -segurunez apirilaren 23an- prentsaurreko baten bidez **maiatzean egingo dugun bi eguneko greba egunak** emango dugu jakitera. Aldi berean, aurreko greba baino lehen izan genuen mobilizatio dinamika (elkarretaratxeak eta beste) berriro aktibatuko dugu. Ikasturte bukaera beroa, beraz! Nork eraginda?

## IRALE: uda eta 2018-2019 ikasturtea

### ESKABIDEA EGITEKO EPEA:

**2018ko apirilaren 16tik 30era, biak barne.**

**Informazio gehiago:**

<http://www.euskadi.eus/irale-irakasle-bitarteko-eta-ez-finkoentzat-2018-2019-ikasturtea/web01-a3heusk/eu/>

www.steilas.eus

Araba ☎ 945 14 11 04  
araba@steilas.eus

Bizkaia ☎ 944 10 02 98  
bizkaia@steilas.eus

Gipuzkoa ☎ 943 46 60 00  
gipuzkoa@steilas.eus

Nafarroa ☎ 948 21 23 55  
nafarroa@steilas.eus